Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

# Aurretiazko genero eraginaren txostena

**Foru dekretu proiektua, interes orokorreko xedeen esparruan lehentasunezko mezenasgo jarduerak 2024-2028 epealdirako ezartzen dituena**

## 1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren aldez aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren aldez aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

# Informe de evaluación previa de impacto de genero

**Proyecto de decreto foral por el que se declaran las actividades prioritarias de mecenazgo para el periodo 2024-2028 en el ámbito de los fines de interés general**

## 1. Introducción

Este informe tiene como objetivo dar cumplimiento a lo establecido en el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su proceso de elaboración y tramitación, se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.

Ese informe de evaluación previa del impacto en función del género deberá de constar de las siguientes partes:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.

- genero eraginaren aldez aurreko ebaluazioa.

- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

- la descripción general del proyecto de norma o de disposición de carácter general.

- la evaluación previa del impacto en función del género.

- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada

## 2. Arau aldaketak

2004ko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, bere 29. artikuluan ezartzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiak interes orokorreko xedeen esparruan lehentasunezkotzat jotzen diren mezenasgo jardueren zerrenda bat egin ahal izango duela ekitaldi bakoitzerako, entitate onuradunak zein diren eta jarduera horiek zer baldintza eta beharkizun bete behar dituzten ere zehaztuta: hori guztia aipatutako artikulu horretan aurreikusita dauden zerga onurak aplikatze aldera.

## 2. Modificaciones normativas

El artículo 29 de la Norma Foral 3/2004, de 7 abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, establece que la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá establecer para cada ejercicio una relación de actividades prioritarias de mecenazgo en el ámbito de los fines de interés general, así como las entidades beneficiarias y los requisitos y condiciones que dichas actividades deben cumplir, a los efectos de la aplicación de los beneficios fiscales previstos en el citado artículo.

"Lehentasunezko" deklaratzen diren jarduera gehienek gero datozen ekitaldietan kalifikazio horrekin jarraitzeak komenigarria egiten du haien indarraldia luzatzea, eta horregatik 2024-2028 epealdirako ezarri nahi dira. Egonkortasun horrek posible egingo du, era berean, ekarpenak egiten dituztenen konfiantza handitzea, epe luzeago baterako emango baitie ziurtasuna egiten dituzten ekarpenen zerga araubideari dagokionez. Hori guztia, ekarpen horietarako pizgarri eta dinamizatzaile izatea espero da, haien zerga onuren horixe baitute azken helburu.

La recurrencia de la mayor parte de actividades calificadas como “priotarias” en los sucesivos ejercicios aconseja contemplar un periodo más amplio de vigencia, y por ello se pretenden declarar para el periodo 2024-2028. Esa estabilidad permitirá, igualmente, aumentar la confianza de las personas aportantes, al otorgarles certeza sobre el régimen fiscal de sus aportaciones a más largo plazo. Se espera que eso actúe de incentivo y dinamizador de dichas contribuciones, objetivo último de sus beneficios fiscales.

Aurrekoaz aparte, pertsona edo entitate onuradun batek garatzen duen jarduera edo programa jakin bat berariazko eran deklaratzeak "lehentasunezkotzat" urtebeteko indarraldia izango du, eta, beraz, deklarazio hori egiteko aurkeztu behar den eskaera eta jasotako ekarpenei buruz gero aurkeztu behar den memoria ekitaldi guztietan egin eta bidali beharko dira. Horrela, lehentasunezko jardueren zerrendari egonkortasuna emateak ez du berekin ekarriko gaur indarrean dagoen prozedura aldatzea.

Con independencia de lo anterior, la declaración expresa como “prioritaria” de una actividad o programa concreto desarrollado por una persona o entidad beneficiaria tendrá una vigencia anual, de forma que la solicitud previa para su declaración y la memoria posterior sobre las aportaciones recibidas deberán seguir elaborándose y remitiéndose cada ejercicio. De esta forma, la estabilidad de la relación de actividades prioritarias no supondrá la modificación del procedimiento actualmente vigente.

Foru dekretu proiektu honen bitartez onartu 2024-202 epealdirako lehentasunezkotzat jotzen diren jarduerak onartzeaz gain, zehaztu

Este proyecto de Decreto Foral, además de aprobar las actividades prioritarias para el periodo 2024-2028, determina las entidades

egiten du zein entitatek izan behar duten ekarpenen onuradunak, hala dagokienean, eta zer baldintza eta beharkizun bete behar diren jarduera horien garapenean.

beneficiarias a las que dirigir las aportaciones, en su caso, y los requisitos y condiciones que se deben cumplir en el desarrollo de las referidas actividades.

Babestutako jardueren esparru nagusiak honakoak dira:

Los principales ámbitos de las actividades protegidas son:

**Gizarte politiken esparrua**

**Ámbito de las políticas sociales**

a) Desgaitasuna duten edo bazterketa arriskuan dauden pertsonen lan eta gizarte arloan gizarteratzea.

a) La integración socio-laboral del colectivo de personas con discapacidad y/o en riesgo de exclusión.

b) Pobrezia- eta kalteberatasun-egoeran dauden haurrei eta haien senideei zaintzak eta laguntza ematea.

b) La provisión de cuidados y apoyos a la infancia y sus familiares en situación de pobreza y vulnerabilidad.

c) Mendekotasun egoeran dauden pertsonei, desgaitasuna dutenei, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonei eta gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan edo babes gabezia egoeran dauden pertsonei zuzendutako zainketak eta laguntzak ematea.

c) La provisión de cuidados y apoyos a personas en situación de dependencia, personas con discapacidad, personas con problemas de salud mental y personas en situación o riesgo de exclusión o de desprotección social.

d) Familia kalteberei zainketak eta laguntzak ematea.

d) La provisión de cuidados y apoyos a las familias vulnerables.

e) Zahartze aktiboa sustatzeko formulen aniztasuna lantzea.

e) Trabajar la diversidad de fórmulas para la promoción del envejecimiento activo.

f) Komunitatearen erantzukizuna eskatzea gizarte arloko behar berriei erantzun ahal izateko.

f) Apelar a la responsabilidad comunitaria para responder a las nuevas necesidades sociales.

g) Gizarte zerbitzuen, arlo sozio-sanitarioaren eta zaintzaren tokiko ekosistemen arloko gaiei buruzko ikerkuntza eta berrikuntza.

g) La investigación e innovación sobre materias de las áreas de los servicios sociales o del ámbito socio-sanitario y los ecosistemas locales de cuidados.

**Ingurumenaren esparrua**

**Ámbito del medio ambiente**

Irabazi-asmorik gabeko entitateek elikagaiak alferrik ez galtzeko edo haien xahutzea murrizteko egiten dituzten programak edo jarduerak, horiekin hondakinen sorrera prebenitzen eta murrizten laguntzen dutenean.

Programas o actividades llevadas a cabo por entidades sin ánimo de lucro que tengan por objeto reducir el desperdicio o despilfarro de alimentos y, de esta manera, contribuir a la prevención y reducción de residuos.

**Kirolaren esparrua**

**Ámbito del deporte**

a) Gipuzkoako Foru Aldundiak 2024-2025, 2025-2026, 2026-2027, 2027-2028 eta 2028-2029 ikasturteetarako onesten dituen eskola kiroleko jarduera programetan ezarritako baldintzak eta beharkizunak betetzen dituzten kirol jarduerak.

a) Las actividades deportivas que cumplan las condiciones y requisitos establecidos en los programas de actividades de deporte escolar de los cursos 2024-2025, 2025-2026, 2026-2027, 2027-2028 y 2028-2029 que apruebe la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) Gipuzkoako kirol elkarte, selekzio eta kirolariek kirol txapelketetan parte hartzea, betiere beharkizun batzuk betetzen badira: kirol

b) La participación de los clubes deportivos, selecciones y deportistas guipuzcoanos y guipuzcoanas en las competiciones

lehiaketa ofiziala izatea; estatuko bi kategoria gorenetako batean parte hartzea, Europa edo mundu mailako txapelketa batean…

deportivas, siempre que se cumplan una serie de requisitos: que sea una competición deportiva oficial; que la participación sea en una de las dos máximas categorías de ámbito estatal, en una competición de ámbito europeo o mundial…

c) Baldintza hauek betetzen dituzten kirol jarduerak: Nazioarteko parte hartze esanguratsua izatea, bai kualitatiboki bai kuantitatiboki; Jarduerak, zati batean behintzat, Gipuzkoan egitea

c) Los acontecimientos deportivos que cumplan una serie de condiciones: tener, cualitativa o cuantitativamente, una significativa participación internacional; que tengan lugar en Gipuzkoa, al menos parcialmente.

d) Protagonistak emakumeak diren edo emakumeen partaidetza bultzatzen duten kirol jarduera edo lehiaketak, edozein dela ere modalitatea, berariaz, genero-estereotipoak haustea bultzatzen dutenak, edota emakumeen ikusgarritasuna eta aitorpen soziala sustatzen dutenak.

d) Las actividades y/o competiciones deportivas, sea cual sea su modalidad, protagonizadas por mujeres o que impulsen la participación de mujeres y que específicamente impulsen la ruptura de estereotipos de género o fomenten la visibilización y reconocimiento social de las mujeres.

e) Desgaitasuna duten pertsonei zuzenduta dauden kirol egokituko edota kirol inklusiboko programak, betiere Gipuzkoan gauzatzen badira.

e) Los programas de deporte adaptado y/o deporte inclusivo dirigidos a personas con discapacidad que se desarrollen en Gipuzkoa.

f) Irabazi asmorik gabeko erakundeek garatutako programak, lurraldean kirol errendimendu handiko taldeak eta kirolariak

f) Los programas desarrollados por entidades sin ánimo de lucro que tengan como objeto el sostenimiento de los equipos y deportistas

mantentzeko helburua dutenak.

de alto rendimiento deportivo en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

**Kulturaren esparrua**

a) Nazioarte mailako kultur programak egitea.

b) Lurraldeko arte eszenikoen konpainiek sustatutako kultura zabaltzeko proiektuak, haurrei eta gazteei zuzendutakoak.

**Ámbito de la cultura**

a) La realización de proyectos culturales de carácter internacional.

b) Los proyectos de difusión cultural promovidos por las compañías de artes escénicos del territorio y dirigidos al público infantil y juvenil.

**Nazioarteko lankidetzaren esparrua**

a) Giza eskubideak defendatzea.

b) Maila ekonomiko, sozial edo politikoan genero berdintasuna defendatu eta sustatzea.

c) Ingurumenaren jasangarritasuna defendatzea, baliabideen erabilera arrazionalarekin eta etorkizuneko belaunaldien bizitzarekin bateragarriak diren bizitzeko moduak ere barne.

**Ámbito de la cooperación internacional**

a) La defensa de los derechos humanos.

b) La defensa y la promoción de la equidad de género en los planos económico, social o político.

c) La defensa de la sostenibilidad medioambiental y de formas de vida, compatibles con el uso racional de los recursos y la vida de las futuras generaciones.

**Euskararen esparrua**

a) Euskararen erabilera soziala sustatzeko programa eta jarduerak.

b) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliaz, edukiak euskaraz hedatzeko proiektuak.

c) Herri edo eskualde mailako euskarazko hedabideak.

d) Euskararen erabilera arlo sozioekonomikoan sustatzeko jarduerak eta ekintzak.

e) Euskarazko ahozko ondarea babestu, suspertu eta hedatzeko jarduerak.

**Ámbito del euskera**

a) Programas y actividades de promoción social del uso del euskera.

b) Proyectos de difusión de contenidos en lengua vasca mediante tecnologías de la información y de la comunicación.

c) Medios de comunicación de ámbito local o comarcal.

d) Actividades y acciones de impulso al uso del euskera en el ámbito socio-económico.

e) Recuperación, protección y difusión del patrimonio oral vasco.

**Sustapen ekonomikoaren eta berrikuntzaren esparrua**

a) Arlo hauetan ikerketa eta esperimentazio lana garatzen edo ahalbidetzen duten jarduerak: nanozientziak, nanoteknologiak, mikroteknologiak, fabrikazio aurreratuko ikerketa jarduerak, adimen artifiziala, genomika eta proteomika, bioteknologia, neurozientziak, arlo biosanitarioa, energia berriztagarriak, erregai-pilak, zibersegurtasuna, pertsonen zahartzea, elektromugikortasuna eta

**Ámbito de la promoción económica y la innovación**

a) Las actividades que desarrollen o posibiliten la investigación y experimentación relacionada con las nanociencias, nanotecnologías, microtecnologías, actividades de investigación en fabricación avanzada, inteligencia artificial, genómica y proteómica, biotecnología, neurociencias, biosanitaria, energías renovables, pilas de combustible,

gastronomiaren digitalizazioa.

ciberseguridad, envejecimiento, electromovilidad y gastronomía digital.

Eremu honen barruan sartuko dira ikerketa lerro eta proiektuak eta teknologikoki bereziak diren azpiegitura eta ekipamendu berrietan egindako inbertsioa, ikerketa lerro berriak zabaltzea ahalbidetzen dutenean.

En este ámbito, se incluirán las líneas y proyectos de investigación y la inversión en nuevas infraestructuras y equipamientos tecnológicamente singulares, que posibiliten abrir nuevas líneas de investigación.

Era berean, lehentasunezkotzat joko dira zientzia munduaren ardura eremuetan emakumeen presentzia balorizatu eta bultzatzea helburu duten jarduerak, zeregin hori betetzen denean neskatoak eta gazteak mundu zientifikora hurbiltzen lagunduko duten ekimenak garatuz, edo emakumeak buru dituzten ikerketa taldeei zuzendutako bekak, coaching edo laguntza programak bultzatuz.

Igualmente se considerarán prioritarias aquellas actuaciones dirigidas a valorizar e impulsar la presencia de las mujeres en ámbitos de responsabilidad en el mundo científico, tanto mediante el desarrollo de iniciativas que contribuyan al acercamiento de niñas y jóvenes hacia el mundo científico como en el impulso de programas de becas, coaching o apoyos específicos a grupos de investigación liderados por mujeres.

b) Enpresen ekintzailetzaren kultura eta nazioarteko lankidetza sustatzeko programak eta jarduerak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek edo Gipuzkoako lurraldearen garapen ekonomikoa sustatzen duten zuzenbide publikoko korporazioek eginak direnean.

b) Los programas y actividades para impulsar la cultura tanto del emprendimiento como de la cooperación internacional empresarial, llevadas a cabo por entidades privadas sin ánimo de lucro en el Territorio Histórico de Gipuzkoa o por corporaciones de derecho público que promuevan el desarrollo económico del territorio de Gipuzkoa.

c) Bizitza osoko ikaskuntza sustatzeko jarduerak, hasierako prestakuntza arautua

c) Las actividades de promoción del aprendizaje a lo largo de toda la vida (ALTV)

(hezkuntza agintari eskudunek finantzatua), okupazionala eta jarraitua integratzen duten entitateek garatuta.

desarrolladas por entidades que integren la formación inicial reglada (financiada por las autoridades educativas competentes), ocupacional y continua.

d) Euskal Herriko Unibertsitatearen «Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren astea».

d) La Semana de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación de la Universidad del País Vasco.

e) “Ekonomia zirkularra”ren estrategian bildutako ekimenak, esparru hauetako bat hartzen dutenean: diseinu ekologikoa, ekonomia funtzionala, berrerabilpena, konponketa, birfabrikazioa, birziklapena eta ekologia industriala.

e) Iniciativas incluidas en la estrategia de la “economía circular” relacionadas con alguno de estos ámbitos: diseño ecológico, economía funcional, reutilización, reparación, refabricación, reciclaje y ecología industrial.

f) Gipuzkoan terapia aurreratuak eta konputazio kuantikoa azkarrago ezartzea helburu duten jarduerak.

f) Las actuaciones que tengan por objeto acelerar la implantación en Gipuzkoa de terapias avanzadas y de la computación cuántica.

g) Inbertsio-industriaren kultura sustatzeko jarduerak, tokiko enpresa-sarea garatzeko palanka gisa, hezkuntza eta ikerketa-jarduerak garatuz eta/edo babestuz, bai eta ezagutza zabalduz ere, hitzaldi, mintegi eta argitalpenen bidez.

g) Las actividades para fomentar una cultura de la industria inversora como palanca de desarrollo del tejido empresarial local, mediante el desarrollo y/o patrocinio de actividades educativas y de investigación, así como la divulgación de conocimiento a través de conferencias, seminarios y publicaciones.

h) Genero aniztasuna sustatzea eta emakumeak

h) Las actividades para promover la

erabakiak hartzeko organoetan sartzea helburu duten jarduerak, lurraldearen garapen ekonomiko eta soziala bultzatzeko beharrezko elementu gisa.

diversidad de género, y la inclusión de las mujeres en los órganos de toma de decisiones, como elemento necesario para impulsar el desarrollo económico y social del territorio.

Aurreko 1. Apartatuko a) letran jasotako jarduerei dagokienez, erakunde onuradun izan ahalko dira beren helburuen artean letra horretan adierazitako jardueraren bat edo batzuk biltzen dituzten erakunde guztiak. Nahitaezkoa da jarduera horiek Gipuzkoan egitea, eta entitateak lurralde horretan kokatuta egotea. Zehazki, entitateek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agenteak izan behar dute. Ospitaleek egindako ikerkuntza jarduerak ere barruan sartu daitezke, haien helburua 1. apartatuaren a) letran jasotakoen artean badago.

Con respecto a las actividades incluidas en la letra a) del apartado 1 anterior, podrán ser entidades beneficiarias todas aquellas entidades que incluyan entre sus finalidades alguna o algunas de las actividades indicadas en dicha letra, debiendo desarrollarse en Gipuzkoa y por entidades localizadas en dicho territorio. En particular, las entidades deberán estar acreditadas como agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación. También podrán incluirse las actividades de investigación realizadas por hospitales, siempre que tengan como finalidad alguna de las incluidas en la letra a) del apartado 1.

**Suteen aurkako esparrua**

Gipuzkoako lurralde historikoan suteen aurkako lanaren arloan trebatzea eta prestatzea xede duten irabazi asmorik gabeko entitate pribatuek garatutako jarduerak eta programak.

**Ámbito de la prevención de incendios**

Las actividades y programas desarrollados por entidades privadas sin ánimo de lucro que tengan como objeto el adiestramiento y la formación en materia de prevención y extinción de incendios en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

# 3. Genero eragina

## 3.1 Genero egokitasuna

Proiektu honen helburua da interes orokorreko xedeen esparruan lehentasunezkotzat jotzen diren mezenasgo jardueren zerrenda ezartzea 2024-2028 epealdirako, entitate onuradunak zein diren eta jarduera horiek zer baldintza eta beharkizun bete behar dituzten ere zehaztuta: hori guztia dagokion araudian aurreikusita dauden zerga onurak aplikatze aldera.

Proiektu honetan jasotako neurriek bi ikuspuntutatik dute eragina.

Alde batetik, lehentasunezkotzat jotzen diren jarduerei dohaintzak egiten dizkieten zergadunek kenkari batzuk aplikatzeko eskubidea izango dute, PFEZaren kuotan (pertsona fisikoak) edo sozietateen gaineko zergaren kuotan (pertsona juridikoak). Hau da, eragina du emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko moduan.

# 3. Impacto de género

## 3.1. Pertinencia de género

Este proyecto tiene por objetivo establecer para el periodo 2024-2028 la relación de actividades prioritarias de mecenazgo en el ámbito de los fines de interés general, así como las entidades beneficiarias y los requisitos y condiciones que dichas actividades deben cumplir, a los efectos de la aplicación de los beneficios fiscales previstos en la normativa correspondiente.

Las medidas contempladas en este proyecto tienen incidencia desde dos puntos de vista.

Por un parte, las personas contribuyentes que realicen donaciones a las actividades que sean consideradas como prioritarias tendrán derecho a aplicarse una serie de deducciones en la cuota del IRPF (personas físicas) o del impuesto sobre sociedades (personas jurídicas). Es decir, afecta al acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres.

Bestalde, pizgarri horrek jarduera horiek egiten dituzten erakundeen finantzaketa erraztu eta areagotu dezake, eta, aldi berean, lehentasunezko jarduera horiek egitea sustatu.

Por otro lado, ese incentivo puede facilitar y aumentar la financiación de las entidades que realizan tales actividades, incentivando a su vez la realización de dichas actividades prioritarias.

Askotan, jarduera horien azken hartzaile zuzenak pertsona fisikoak dira, emakumeak eta gizonak. Eragina dute pertsonen harreman sozialekin zuzenean lotuta dauden gaietan, haien bizi baldintzetan eta baliabideen eskuragarritasunean (lan baldintzak, soldatak, ingurune fisikoa…). Beraz, genero rolaren eta genero estereotipoen hausturan ere eragin daiteke.

En muchas ocasiones el grupo destinatario final de dichas actuaciones son directamente las personas físicas, mujeres y hombres. Afectan en cuestiones directamente vinculadas a las relaciones sociales de las personas, sus condiciones de vida y acceso a los recursos (condiciones laborales, salarios, entorno físico…). Por lo que se puede incidir también en la ruptura del rol de género y los estereotipos de género.

Gainera, neurriak baita eragiten diete lehentasunezko jarduerak aurrera eramaten dituzten entitate beraiei ere; eta entitate horiek agente benetan garrantzitsuak dira gure lurraldeko sare sozio-ekonomikoan.

Además, las medidas también afectan a las propias entidades que llevan a cabo las actividades prioritarias; entidades que son agentes que tienen una especial relevancia dentro del entramado social y económico de nuestro territorio.

Horrela, hori guztia kontuan hartuta, ondorioztatzen da egokia dela arau proiektua genero ikuspegitik aztertzea.

Así, teniendo en cuenta todo ello, se determina que es pertinente el análisis de género del proyecto normativo.

## 3.2. Genero eraginaren balorazioa

## 3.2 Valoración del impacto de género

### 3.2.1. Hasierako egoera

### 3.2.1 Situación inicial

Babestutako jardueren alorrean dagoen abiapuntua honako da.

La situación de partida en los ámbitos de las actividades protegidas es la siguiente.

**Gizarte politiken esparrua**

**Ámbito de las políticas sociales**

Oro har, adineko pertsonei zuzendutako programetan emakumeen presentzia gizonezkoena baino nabarmen handiagoa da. Baina horrek arrazoi jakina du: emakumeak gehiago bizi dira, eta gainera, adinean aurrera joan ahala diferentzia hori handiagoa da. Eustat-en datuen arabera, 65 urte edo gehiagoko emakumeak tarte horretako ia %57 diren bitartean, muga 80 urtetan ipintzen badugu portzentajea ia-ia %65era igotzen da.

En términos generales, en los programas dirigidos a personas mayores, la presencia de mujeres es mayor a la de los hombres. Eso se debe a un factor claro: las mujeres tienen una esperanza de vida mayor, y, además, cuanta más avanzada sea la edad, mayor es la diferencia entre sexos. Según datos del Eustat en el grupo de edad a partir de 65 años, las mujeres representan casi el 57% de la población; mientras que, en el grupo de edad de personas mayores de 80 años, el porcentaje de mujeres alcanza casi el 65%.

Gizarte Politiketarako Departamentuak emandako datuen arabera, artatutako populazio osotik, %70,89a emakumezkoa da eta beste %29,11a gizonezkoa. Eta banaketa hori

Según datos proporcionados por el Departamento de Políticas Sociales, del total de la población atendida, el 70,89% son mujeres y el 29,11% restante hombres. Y ese

zerbitzu gehienetan errepikatzen da.

porcentaje se repite en la mayoría de los servicios.

**Adineko pertsonak – foru zerbitzu nagusienetan artatutako populazioa**

**Personas mayores - población atendida en los principales servicios forales**

**(2023/07/31)**

| | **Guztira Total** | **Gizonak Hombres** | **Emakumeak Mujeres** |
|---|---|---|---|
| Adineko mendekoak guztira<br>Mayores dependientes en total | 20.690 | 14.478 | 6.212 |
| Egoitzak<br>Residencias | 5.245 | 28,52% | 71,48% |
| Etxeko arreta (mendekoak)<br>Ayuda a Domicilio (dependientes) | 3.263 | 29,24% | 70,76% |
| Eguneko zentroak<br>Centros de día | 1.994 | 28,44% | 71,56% |
| Unitate sozio-sanitarioak<br>Unidades socio-sanitarias | 216 | 50,00% | 50,00% |
| Aldi baterako egonaldiak<br>Estancias temporales | 149 | 24,16% | 75,84% |
| **Guztira artatutako pertsonak<br>Total de personas atendidas** | **10.125** | **29,11%** | **70,89%** |

Desgaituen kasuan, gizonezkoen presentzia nabarmenagoa da. Ikerketa guztiek erakusten dute emakumeak beranduago hasten direla zerbitzu horiek erabiltzen. Arrazoi kulturalak direla medio, emakumeek beren autonomiari luzaroago heltzen diote.

En el caso de las personas discapacitadas, la presencia masculina es mayor que la femenina. Los estudios apuntan a que las mujeres acceden más tarde a este tipo de servicios. Por razones culturales, las mujeres intentan mantener su autonomía durante más tiempo.

**Desgaitasuna duten pertsonak – foru zerbitzu nagusienetan artatutako populazioa**

**Personas con discapacidad - población atendida en los principales servicios forales**

**(2023/07/31)**

| | Guztira Total | Gizonak Hombres | Emakumeak Mujeres |
|---|---|---|---|
| Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzak<br>Alojamientos personas con discapacidad | 978 | 59,71% | 40,29% |
| Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitzak<br>Alojamientos para personas con trastorno mental grave | 302 | 69,87% | 30,13% |
| Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak<br>Centros de día personas con discapacidad | 838 | 56,56% | 43,44% |
| Buruko gaixotasun larriak dituzten pertsonentzako eguneko zentroak<br>Centros de rehabilitación psicosocial para personas con trastorno mental grave | 248 | 67,34% | 32,66% |
| **GUZTIRA / TOTAL** | **2.366** | **60,69%** | **39,31%** |

Gizarteratzeko programetan, gizarteratzeari dagokionez, gizonen proportzioa handiagoa da jarduera batzuetan: gizarteratze ostatuetan eta desgaituentzako laneko zentroetan. Izan ere, ikerketa guztiek erakusten dute emakumeek zerbitzu horiek erabiltzen dituztela, bakar bakarrik muturreko kasuetan.

En los programas de inserción social, en algunas actuaciones, la proporción de hombres es mayor: por ejemplo, en alojamientos de inserción social, en acogida nocturna y en centros de trabajo para personas con discapacidad. Todos los estudios apuntan a que las mujeres solamente hacen uso de este tipo de servicios en situaciones extremas.

Indarkeria matxistari eskainitako arretan, berriz, emakumeen proportzioa askoz handiagoa da (%92,32). Ondorengo taulan ikusi dezakegu eskainitako arreta hori zertan gauzatu den.

En la atención a víctimas de violencia machista, la proporción de mujeres es mayor (92,32%). La siguiente tabla ilustra las cifras de ese servicio de atención.

**Gizarteratzea – foru zerbitzu nagusienetan artatutako populazioa**

**Inserción social - población atendida en los principales servicios forales**

**(2023/07/31)**

| | Guztira<br>Total | Gizonak<br>Hombres | Emakumeak<br>Mujeres |
|---|---|---|---|
| Gizarteratzeko egoitzak<br>Alojamientos de inserción social | 784 | 71,05% | 28,95% |
| Gaueko arreta<br>Acogida Nocturna | 19 | 89,47% | 10,53% |
| Gizarteratzeko eguneko zentroak<br>Centros de día de inserción social | 385 | 80,52% | 19,48% |
| Gizarte larrialdiak<br>Urgencias sociales | 288 | 25,00% | 75,00% |
| Zentro okupazionalak. Desgaitasuna duten pertsonentzat<br>Centros ocupacionales. Personas discapacitadas | 1.130 | 62,74% | 37,26% |
| Indarkeria matxistaren arreta<br>Atención a la violencia machista | 1.294 | 7,68% | 92,32% |
| **GUZTIRA / TOTAL** | **3.900** | **56,08%** | **43,92%** |

**Kirolaren esparrua**

Eskola kiroleko programetan, emakumeen kopurua ia %50era heltzen da, eta hori bat dator Gipuzkoako populazioan ematen den banaketarekin.

**Ámbito del deporte**

En los programas del deporte escolar el número de mujeres llega casi al 50%, y coincide con la estructura de la población de Gipuzkoa.

**Jarduketa lerro desberdinen onuradunak - 2023**

**Personas beneficiarias de los diferentes ejes de actuación - 2023**

| LERROA (adina)<br>EJE (edad) | ADIERAZLEA<br>INDICADOR | Guztira<br>Total | Gizonak<br>Hombres | Emakumeak<br>Mujeres |
|---|---|---|---|---|
| 0-18 | Actividades de enseñanza deportiva | 43.134 | 22.490 | 20.644 |
| 0-18 | Actividades de competición deportiva | 45.914 | 26.292 | 19.622 |
| 0-18 (12-16) | Plan de Fomento del Deporte Juvenil | 6.178 | 3.017 | 3.161 |

Bultzatu nahi diren gainerako kirol jarduerei buruz, ez dago nahiko xehakapenik duen estatistikarik jakiteko nolako den lehentasunezkotzat hartutako programa bakoitzaren hasierako egoera konkretua. Baina, oro har eta EAEko datuekin, alde nabarmena ikusten da kirol mota guztietan eta maila guztietan federatutako lizentzien kopuruan. Gizonezkoek %72,8 dira eta emakumezkoek %27,2.

Respecto al resto de actividades deportivas que se pretende impulsar, no hay datos estadísticos lo suficientemente desglosados para conocer la situación inicial concreta cada uno de los programas considerados prioritarios. Pero, a nivel general y para datos relativos a la CAPV, se aprecia una diferencia significativa en el número de licencias federadas en todos los deportes y en todas las categorías. Los hombres representan el 72,8% y las mujeres el 27,2%.

**Federatutako lizentziak / Licencias federadas**
**2022**

| | Kopurua / Número | % |
|---|---|---|
| Emakumeak / Mujeres | 74.093 | 27,2 |
| Gizonak / Hombres | 198.113 | 72,8 |
| **Guztira / Total** | **272.206** | **100** |

(*) Iturria/Fuente: Anuario de Estadísticas Deportivas 2023. Ministerio de Cultura y Deporte. Gobierno de España

**Kulturaren esparrua**

Bultzatu nahi den kultur esparrua oso mugatua da: nazioarte mailako kultur proiektuak (betiere baldintza batzuk betetzen baditu) eta Lurraldeko arte eszenikoen konpainiek sustatutako kultura zabaltzeko proiektuak, haurrei eta gazteei zuzendutakoak.

**Ámbito de la cultura**

El ámbito cultural que se pretende impulsar es muy limitado: proyectos culturales de carácter internacional (siempre que cumplan una serie de requisitos) y proyectos de difusión cultural promovidos por las compañías de artes escénicos del territorio y dirigidos al público infantil y juvenil.

Ez dago nahiko xehakapenik duen estatistikarik jakiteko nolako den jarduera konkretu horien hasierako egoera. Dena den, zenbait txostenek[1] eta estatistikak adierazten dute emakumeek presentzia adierazgarria dute kulturako publiko kontsumitzaile gisa, kultura-sektoreko lanpostuetan ia presentzia orekatua da eta, hala ere, sorkuntzaren lan-merkatuan duten pisua murritzagoa da ia sektore guztietan, bereziki erantzukizuneko eta erabakiak hartzeko postuetan. Are urriagoa da kultura zabaltzen den zentroetan sortzaile gisa duten presentzia, hala nola museoetan, antzokietan, zinema-aretoetan... Desberdintasun hori kultura-mundutik sortutako irudikapenetara eramaten da: kultura-produktuetan dabiltzan ideiek eta irudiek emakumeek gizartean duten zeregina minimizatzen dute, eta behin eta berriz kokatzen dituzte mendeko posizioetan.

No hay datos estadísticos lo suficientemente desglosados para conocer la situación inicial de esas actividades en concreto. De todas formas, diversos informes1 y estadísticas señalan las mujeres tienen una importante presencia como público consumidor de cultura, alcanzan niveles casi de presencia equilibrada en los puestos de trabajo del sector cultural y, sin embargo, su peso en el mercado laboral creativo es minoritario en casi todos los sectores, especialmente en los puestos de responsabilidad y toma de decisiones. Más minoritaria aún es su presencia como creadoras en los centros desde los que se difunde la cultura, como museos, teatros, salas de cine…. Esta desigualdad se traslada a las representaciones generadas desde el mundo de la cultura: las ideas e imágenes que circulan en los productos culturales minimizan el papel de las mujeres en la sociedad e insisten en situarlas en posiciones subordinadas.

**Euskararen esparrua**

Eustaten 2021eko euskara-maila orokorraren datuen arabera, ez dago ezberdintasun handirik emakume eta gizonen artean: bi kasuetan %57

**Ámbito del euskera**

Según datos del Eustat de 2021 sobre el nivel global de euskera, no hay grandes diferencias entre hombres y mujeres: en ambos casos

[1] Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa kulturan / La evaluación del impacto en función del género en la cultura. Emakunde 2022.

inguruk euskaldunak direla aitortzen dute. Eta erabilerari dagokionez ere ez dago alde handirik: emakumeen %25,3k esaten du euskara bakarrik erabiltzen duela etxeko hizkuntza bezala. Gizonezkoen kasuan portzentajea %25,0ekoa da.

cerca del 57% se declara euskaldun. Y en relación al uso tampoco hay grandes diferencias: el 25,3% de las mujeres dice que usa únicamente el euskera en casa como lengua hablada. En el caso de los hombres el porcentaje es del 25,0%.

Bestalde, 2018ko Euskal Hedabideen Urtekariaren arabera emakumeen presentzia euskarazko tokiko hedabideetan iritzi-emaile bezala %39koa da; eta beste lurralde batzuetan ematen dena baino handiagoa da: Hego Euskal Herriko gainerako prentsan (%22), Katalunian (%18 eta %22 bitartean) edo Espainiako Estatuko idatzizko hedabideetan (%21). Gainera, kopuru horiei Berria-k emandako %33a gehitzen badiegu, esan dezakegu euskarazko prentsako iritzietan emakumeen presentzia handiagoa dela gaztelaniazkoan baino. Hala ere, emaitzek agerian uzten dute oraindik ezin dugula genero-parekotasunaz hitz egin.

Por otro lado, según el Anuario de Medios de Comunicación en Euskera de 2018 la presencia de mujeres como articulistas de opinión en medios de comunicación local en euskera es del 39%; y es superior al existente en otros territorios: resto de prensa de Hego Euskal Herria (22%), Cataluña (entre el 18% y el 22%) o prensa escrita en España (21%). Además, si a esas cifras le sumamos el 33% aportado por Berria, podemos decir que la presencia de las mujeres como articulistas de opinión es superior en la prensa en euskera que en la de castellano. Pero, los resultados dejan muy claro que todavía no podemos hablar de la paridad de género.

Euskarazko hedabideen kontsumoari buruz, urtekari horretan bertan adierazten da, egunkarietan eta irratietan emakumezko kontsumitzaile gehiago dagoela, gizonezkoen aldean (%47), eta alderantziz gertatzen dela telebistan (%48 emakumeak eta %52 gizonak).

Respecto al consumo de medios de comunicación en euskera, ese mismo anuario señala que en los periódicos y en la radio hay más personas consumidoras mujeres (53%) que hombres (47%), y que ocurre lo contrario en la televisión (48% para las mujeres y 52% para los hombres).

**Sustapen ekonomikoaren eta berrikuntzaren esparrua**

"Mujeres e innovación 2022"[1] txostenaren ondorioetan adierazten da genero arrakalak oraindik ere esanguratsuak direla berrikuntzan eta ekintzailetzan parte hartzeari dagokionez.

Bokazio berritzaileei dagokienez, emakumeen ordezkaritza oso txikia da STEM eremuetan, batez ere ingeniaritzetan eta teknologietan.

Emakumeek berrikuntzaren eremuan duten partaidetza mailari dagokionez, jarduera ekintzailearen tasa Europako txikienetakoa bada ere (% 5,2), negozio berrien berrikuntza mailak antzekoak dira emakumeen (% 27) eta gizonen (% 28) artean. Hala ere, gizonek zein emakumeek hasitako negozio berri horiek teknologia-maila baxuko sektoreetakoak dira.

Enpresetako I+Gko barne langileen kasuan, 2020an %28,9 emakumeak izan ziren. Hauek

**Ámbito de la promoción económica y la innovación**

En las conclusiones del informe "Mujeres e innovación 2022"[1] se señala que las brechas de género siguen siendo significativas en la participación en la innovación y el emprendimiento.

En lo referente a las vocaciones innovadoras se confirma una importante infrarrepresentación de las mujeres en los ámbitos STEM, especialmente en Ingenierías y Tecnologías.

Respecto al nivel de participación de las mujeres en el ámbito de la innovación, aunque la tasa de actividad emprendedora es de las más bajas de Europa (5,2%), los niveles de innovación de los nuevos negocios son similares entre mujeres (27%) y hombres (28%). Sin embargo, estos nuevos negocios emprendidos, tanto por hombres como por mujeres, pertenecen a sectores de bajo nivel tecnológico.

En el caso del personal interno en I+D en empresas, en 2020 el 28,9% fueron mujeres.

[1] Mujeres e innovación 2022. Ministerio de Ciencia e Innovación. Gobierno de España

dira emakume berritzaile gehienak biltzen dituzten jarduera-adarrak: Informazioa eta komunikazioak (%33), jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (%12,0) eta finantza- eta aseguru-jarduerak (%10,6).

Las ramas de actividad que concentran la mayor parte de mujeres innovadoras son Información y comunicaciones (33%), actividades profesionales, científicas y técnicas (12,0%) y actividades financieras y seguros (10,6%).

Enpresen sektoreko barneko I+Gko jarduerek argi eta garbi erakusten dute emakumeen partaidetza maila txikiagoa dela (%31,7); parte-hartze txikiagoa dute lanpostu teknikoetan (%28,9) eta handiagoa ikertzaileetan (%31,7). Langileen beheko eskaletan langile laguntzaileak nabarmentzen dira partaidetza portzentaje altuenekin (%34). Aitzitik, emakumeen partaidetzak maila handiagoak ditu Administrazio Publikoan (%53,7) eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuetan (%51,7).

Las actividades de I+D interna en el sector Empresas muestra claramente menores niveles de participación de las mujeres (31,7%); menor participación en puestos técnicos (28,9%) y mayores niveles entre el personal investigador (31,7%). En las escalas inferiores de personal destaca el personal auxiliar con los porcentajes más elevados de participación (34%). La participación de ellas, al contrario, muestra niveles más elevados en la Administración Pública (53,7%) y en las instituciones privadas sin fines de lucro (51,7%)

Emakumeek berrikuntzan eta ezagutzaren transferentzian betetzen duten zereginari dagokionez, EBren eremuan emakume asmatzaileek ia ez dute ordezkaritzarik. Europa mailako ratioak adierazten duenez, gizonen eskuetan zeuden 100 patente eskaeratik 12 baino ez zeuden emakumeen esku.

En relación al papel que desempeñan las mujeres en la innovación y la transferencia de conocimiento, en el ámbito de la UE las mujeres inventoras apenas tienen representación. La ratio a nivel europeo indica que, por cada 100 solicitudes de patentes en poder de hombres, sólo 12 estaban en manos de mujeres.

Agenda berritzailean, 2020an administrazio

En la agenda innovadora, las mujeres están

publikoek finantzatutako I+G+b proiektuen %93an emakumeak daude, baina proiektu horien %39,4an soilik dira ikertzaile nagusiak.

presentes en el 93% de los proyectos de I+D+i financiados en 2020 por las AAPP, si bien sólo son las investigadoras principales en el 39,4% de dichos proyectos.

**Suteen aurkako esparrua**

Suteen aurkako alorra oso maskulinizatuta dago.

Gipuzkoan zeregin horietan jarduten duen instituzio nagusiak (Sueskola Fundazioa) adierazten du suteen aurkako zerbitzuetan lan egiten duten langile profesionalen barruan emakumeen Presentzia ez dela %1era iristen. Eta urtero suteen prebentzio eta itzalketa alorrean prestatu diren pertsona guztien artetik, emakumezkoek %7,4a besterik ez dutela suposatzen.

**Ámbito de la prevención de incendios**

El ámbito de la prevención de incendios está muy masculinizado.

La principal institución dedica a esas labores en Gipuzkoa (Sueskola Fundazioa) señala que dentro de la plantilla de personal profesional de los servicios de extinción de incendios la presencia de las mujeres no llega al 1%. Y que del total de personas que se han formado anualmente en materia de prevención y extinción de incendios, las mujeres representan únicamente el 7,9% del total.

## Zerga pizgarriak

Zerga ereduetan eskuragarri dagoen informazioarekin, ezinezkoa da dohaintzen zenbatekoa banatzea proiektuan jasotako jardueren eremuen arabera.

Lehentasunezkotzat jotako jarduerek aplikatu dezaketen pizgarri fiskalei dagokienez, horien

## Incentivos fiscales

Con la información disponible en los modelos tributarios resulta imposible desglosar la cuantía de las donaciones por los ámbitos de las actividades recogidos en el proyecto.

En relación a los incentivos fiscales aplicables a las actividades declaradas prioritarias, para

erreferentzia kuantitatiboa izateko, eskura dauden azken datuak, 2022ko ekitaldikoak, erakusten dira. Dena den, kontuan izan behar da babestutako jardueren zerrenda aldatu egin daitekeela urte batetik bestera.

tener una referencia cuantitativa de las mismas, se muestran a continuación los últimos datos disponibles, correspondientes al ejercicio 2022. Si bien, hay que tener en cuenta que la relación de actividades protegidas pueden variar de un año a otro.

Horrela, 2022an 50.065 dohaintza egin ziren, eta guztira zenbatekoa 16,1 milioi eurotakoa izan zen.

Así, en 2022 se realizaron 50.065 donaciones por importe total de 16,1 millones de euros.

**LEHENTASUNEZKO JARDUERAK / ACTIVIDADES PRIORITARIAS 2022**

| | Kopurua / Número | Zenbatekoa / Importe (€) |
|---|---|---|
| Pertsona fisikoak / Personas físicas | 49.182 | 7.757.299 |
| Pertsona juridikoak / Personas jurídicas | 883 | 8.331.001 |
| **Guztira / Total** | **50.065** | **16.088.300** |

Dohaintza horien %98,2a pertsona fisikoek egin zituzten eta %1,8a pertsona juridikoek. Pertsona fisikoek egindako dohaintzen zenbatekoaren %48,2a metatu zuten (7,7 milioi euro) eta pertsona juridikoek beste %51,8a (8,3 milioi euro).

El 98,2% de esas donaciones las realizaron personas físicas y el 1,8% personas jurídicas. En el importe donado, las personas físicas acumularon el 48,2% (7,7 millones de euros) y las personas jurídicas el 51,8% restante (8,3 millones de euros).

**LEHENTASUNEZKO JARDUERAK / ACTIVIDADES PRIORITARIAS 2022**

| | Kopurua / Número | Zenbatekoa / Importe (€) |
|---|---|---|
| Emakumezkoak / Mujeres | 23.174 | 3.586.812 |
| Gizonezkoak / Hombres | 26.008 | 4.170.488 |
| **Guztira / Total** | **49.182** | **7.757.299** |

Pertsona fisikoetan, generoaren araberako

En las personas físicas, el reparto por género

banaketak erakusten du emakumeek dohaintzen %47,1a egiten zutela kopuruari dagokionez eta zenbatekoaren %46,2. Gizonezkoek, berriz, dohaintzen %52,9a egiten zuten eta zenbatekoaren %53,8a metatu zuten.

Lehentasunezko jarduerekin lotutako zerga ereduetan ez da zehazten dohaintza zein esparrutara egin den.

### 3.2.2 Genero eraginaren analisia

Hasiera batean, eta Foru Dekretu proiektu honen testua begiratuta, genero ikuspuntutik egin daitekeen analisia oso mugatua da. Izan ere, eta azaletik, proiektua lehentasunezkoa izango diren jarduera batzuen zerrenda ematera mugatzen da.

Analisia bere osotasunean egiteko babestutako jarduera bakoitza xehetasun gehiagorekin ezagutu beharko litzateke: ezaugarriak, xedeak, eragina izango duen populazioa… Proiektuan zehazten ez diren kontuak.

Dena den, zenbait gogoeta orokor egin daitezke:

- Gizarte politiken esparruan, eta kontuan

muestra que las mujeres realizaron el 47,1% de las donaciones y el 46,2% del importe. Mientras que los hombres realizaron el 52,9% de las donaciones y acumularon el 53,8% del importe.

En la información de los modelos tributarios relativos a las actividades prioritarias no se recoge el ámbito de destino de las donaciones realizadas.

### 3.2.2 Análisis del impacto de genero

En un principio, y atendiendo al texto de este proyecto de Decreto Foral, el análisis que se puede realizar desde el punto de vista de género es muy limitado. El proyecto se limita, a grandes rasgos, a una relación de actividades a considerar como prioritarias.

Para realizar un análisis en su totalidad habría que conocer con más detalle cada una de las actividades protegidas: características, objetivos, población afectada… Cuestiones que no se detallan en el proyecto.

De todas formas, si se pueden realizar varias reflexiones generales:

- En el ámbito de las políticas sociales, y

izanda zerbitzuen erabiltzaileetan emakumezkoak gehiengoa direla, gizarteratzean edo zainketetan hobekuntzak ekartzen dituzten jarduerek, bizi kalitatean hobekuntzak ekarriko dituzte. Beraz, posible da horrek genero eragin positiboa izatea.

teniendo en cuenta que la mayoría de las personas usuarias de los servicios son mujeres, las actividades destinadas a la mejora en la integración o los cuidados incorporan mejoras en la calidad de vida. Por lo que podrían posibilitar un impacto de género positivo.

- Kirolaren esparruan, eta adindun pertsonen parte hartzean dagoen arraila murrizteko, bereziki bultzatzen dira protagonistak emakumeak diren edo emakumeen partaidetza bultzatzen duten kirol jarduera edo lehiaketak, berariaz, genero-estereotipoak haustea bultzatzen dutenak, edota emakumeen ikusgarritasuna eta aitorpen soziala sustatzen dutenak. Atal horrek, hasiera batean, genero eragin positiboa izan lezake.

- En el ámbito del deporte, y para tratar de reducir la brecha existente en la participación de personas mayores de edad, se impulsan específicamente las actividades y/o competiciones deportivas protagonizadas por mujeres o que impulsen la participación de mujeres y que específicamente impulsen la ruptura de estereotipos de género o fomenten la visibilización y reconocimiento social de las mujeres. Ese apartado podría tener, a priori, un impacto de género positivo.

- Sustapen ekonomikoaren eta berrikuntzaren esparruan, lehentasunezkotzat joko dira mundu zientifikoko erantzukizun eremuetan emakumeen presentzia baliotzera eta bultzatzera bideratutako jardunak. Horretarako, neskak eta gazteak zientzia mundura hurbiltzen lagunduko duten ekimenak garatuko dira, bai eta beka programak, coaching-a edo emakumeak

- En el ámbito de la promoción económica y la innovación se van a considerar prioritarias las actuaciones dirigidas a valorizar e impulsar la presencia de las mujeres en ámbitos de responsabilidad en el mundo científico. Ello se va a realizar, tanto mediante el desarrollo de iniciativas que contribuyan al acercamiento de niñas y jóvenes hacia el mundo científico, como impulsando

buru dituzten ikerketa taldeentzako laguntza espezifikoak sustatuko ere. Neurri horiek genero eragin positiboa izango dute, zientziaren eta berrikuntzaren sektorean emakumeen presentzian dagoen desoreka murriztuko baitute.

programas de becas, coaching o apoyos específicos a grupos de investigación liderados por mujeres. Dichas medidas tendrán un impacto de género positivo al reducir el desequilibrio en la presencia de mujeres en el sector de ciencia e innovación.

- Gainerako jarduketa esparruei dagokienez, eta proiektuaren artikulatuak ematen duen informazioa bakarrik kontuan hartuta, oso zaila da genero eraginari buruzko ondorioak ateratzea. Hasiera batean, zerikusia izango du programa horiek genero berdintasuna eta egiturazko desberdintasunak zuzentzeko jarduerak sustatzen dituzten edo ez.

- En relación al resto de ámbitos de actuación, y con la única información que facilita el articulado del proyecto, resulta muy difícil obtener conclusiones sobre su impacto de género. En principio, todo dependerá de si los programas impulsan o no actividades tendentes a la igualdad de género y a la corrección de desigualdades estructurales.

Bestalde, foru dekretu honek informazio obligazioak ezartzen ditu bai lehentasunezko jarduerak eta programak garatzeko ekarpenak jasotzen dituzten pertsona eta entitateentzat, eta bai jarduketa esparru desberdinetako departamentu eskudunentzat, eta horren helburua da informazio horretatik ateratzen diren ondorioak euskarri bat izatea emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatuko dituzten lehentasunezko jarduerak etorkizunean deklaratzeko.

Por otro lado, el articulado del presente proyecto recoge obligaciones de información tanto de las personas y entidades destinatarias de las aportaciones para el desarrollo de las actividades y programas declarados prioritarios, como de los departamentos competentes en los distintos ámbitos de actuación, con la finalidad de que las conclusiones resultantes de dicha información sean el soporte para la adopción de futuras decisiones en la declaración de actividades prioritarias que sirvan para el fomento de la igualdad de oportunidades

entre mujeres y hombres.

Memorietan emandako informazioan oinarrituta, gaian eskumena duen departamentuak txosten bat egin behar du garatutako jarduera edo programaren genero eraginari buruz, eta, hala badagokio, txostenean hizpide izango da, baita ere, zer neurritan betetzen dituen jarduera edo programa horrek genero estereotipoak ezabatzeko eta emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko helburuak. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren aholkularitza jasoko du.

Con base en la información aportada en esas memorias, el departamento competente por razón de la materia debe realizar un informe sobre el impacto de género y, en su caso, sobre el cumplimiento, por parte de la actividad o programa desarrollado, de los objetivos de eliminación de estereotipos de género y de fomento de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres. Para ello contará con el asesoramiento del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Gaur egun, lehentasunezkotzat hartutako jarduera edo programa bakoitzaren arduraduna den Departamentuak aurkeztu du genero eraginaren ebaluazio txosten hori.

Actualmente, cada departamento responsable de la actividad o programa declarado prioritario ha presentado ese informe de evaluación de impacto de género.

Txosten horiek eranskin bezala jaso dira txosten honetan:

Dichos informes se acompañan como anexos a este informe:

**Eranskina 1. Zainketak eta Gizarte Politiketako Departamentuaren txostena**

**Anexo 1. Informe del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales**

- Genero azterketaren egokitasuna zehazten da.
- 2022an lehentasunezkotzat jotako

- Se determina la pertinencia del análisis de género.
- Se relacionan las entidades que realizan

programak egiten dituzten erakundeak zerrendatzen dira.

programas declarados como prioritarios en 2022.

- Aztertutako erakundeen artean kasuistika oso desberdina dagoela adierazi da, Berdintasun Plana dutenak eta ez dutenak bereiziz.

- Se señala que hay una casuística muy diversa en las entidades analizadas, diferenciando entre las que tienen y no tienen Plan de Igualdad.

- Entitate bakoitzaren langileei, hartzaileei, zuzendaritza postuei, administrazio kontseiluaren osaerari… buruzko datuak aurkezten dira.

- Se presentan datos sobre personas trabajadoras, personas destinatarias, puestos directivos, composición del consejo de administración… de cada entidad.

- Genero eraginaren balorazioa egiten da.

- Se realiza una valoración del impacto de género

- Proposatutako neurri zuzentzaileei buruz, adierazten da, ebaluazio on bat egiteko eta horri buruzko neurriak proposatzeko, ez dagoen informazioa behar da, memorietan sartzen den informazioa ez baitago behar bezala neurtuta. Behin hori lortuta, eta 2023. Ekitaldirako helburua da hori lortzea, dagokion proposamenak egingo dira

- Respecto a las medidas correctoras propuestas, se señala que a fin de proceder a una buena evaluación y proponer medidas al respecto, se necesita de una información de que no se dispone, porque la información que se incorpora a las memorias no está suficientemente tasada. Una vez que se consiga esto y para el ejercicio 2023 es un objetivo que se ha planteado, realizaremos las correspondientes propuestas.

**Eranskina 2. Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kiroletako Departamentuaren txostena. Kirolen esparrua.**

- 2022an lehentasunezkotzat jotako 102 jarduera edo programa zerrendatzen dira, horietako bakoitzaren laburpen txiki batekin (modalitatea, gaia …), eta parte-hartzaileen eta/edo erakundeko zuzendaritza-kideen datuak generoaren arabera bereizita ematen dira.

- Genero desberdintasunak arintzeko xedearekin, artikulatuaren barruan atal bat ezartzen da non protagonistak emakumeak diren edo emakumeen partaidetza bultzatzen duten kirol jarduera edo lehiaketak, edozein dela ere modalitatea, berariaz, genero-estereotipoak haustea bultzatzen dutenak, edota emakumeen ikusgarritasuna eta aitorpen soziala sustatzen dutenak. 102 erakundeetatik 25ek horrelako jarduerak garatzen dituztela adierazi dute.

- Adierazten da jarduera horiek lehentasunezkotzat aitortzeak zuzenean eragiten diola emakumeak kirolean parte hartzeari, eta zuzenean eragiten duela

**Anexo 2. Informe del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes. Área de deportes.**

- Se relacionan las 102 actividades o programas declarados como prioritarios en 2022, con un pequeño resumen de cada uno de ellos (modalidad, tema…), y aportando datos desagregados por género de las personas participantes y/o personal directivo de la entidad.

- Se señala que, para mitigar las desigualdades de género, se establece en el articulado un apartado para las actividades y/o competiciones deportivas, sea cual sea su modalidad, protagonizadas por mujeres o que impulsen la participación de mujeres y que específicamente impulsen la ruptura de estereotipos de género o fomenten la visibilización y reconocimiento social de las mujeres. Señalan que 25 de las 102 entidades desarrollan ese tipo de actividades.

- Se señala que el reconocimiento de esas actividades como prioritarias afecta directamente a la participación de las mujeres en el deporte y contribuye

estereotipoak ezabatzean eta gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzean.

**Eranskina 3. Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kiroletako Departamentuaren txostena. Kulturaren esparrua.**

- 2022an lehentasunezkotzat jotako programak egiten dituzten erakundeak zerrendatzen dira.

- Generoari dagozkiola identifikatzen ditu nazioartean ospea duten tokiko sortzaileen lana zabaltzeko nazioarteko kultura proiektuekin zerikusia duten jarduerak, eta hainbat herrialdetako artistek parte hartzen duten programak.

- Adierazten da ezin izan dela desberdintasunik identifikatu eskura dagoen informazioan oinarrituta, kultura jardueren aurrean gaudelako, eta administrazioaren erantzuna araututa dagoela: ezarritako baldintzak betetzen badira baino ez da lehentasunezko jardueratzat joko, edo alderantziz, baldintzak betetzen ez badira, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ezin izango du eraginik izan erakunde onuradunen

directamente a la eliminación de estereotipos y a la promoción de la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres.

**Anexo 3. Informe del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes. Área de cultura.**

- Se relacionan las entidades que realizan programas declarados como prioritarios en 2022.

- Identifica la pertinencia de género para los proyectos culturales de carácter internacional para la difusión de la obra de creadores y creadoras locales reconocidos internacionalmente y los programas en que participen artistas de diferentes países.

- Se señala que no se han podido identificar desigualdades en base a la información de que se dispone, al encontrarnos ante actividades culturales, siendo reglada la respuesta de la administración: procede solamente la declaración como actividad prioritaria, si se cumplen los requisitos establecidos, o lo contario, si no se cumplen, y sin que quepa incidir desde la Diputación Foral

antolaketan edo jokabidean. Kasu horietan, uste da ez dagoela genero eraginik bakar batean ere.

de Gipuzkoa en la organización o el comportamiento de las entidades beneficiarias. En esos casos, se considera, que no concurre la incidencia de género en ninguna de ellas.

- Entitateen langileriari eta zuzendaritza organoei buruzko datuak aurkezten dira.

- Se presentan datos sobre las plantillas y órganos directivos de las entidades.

- Genero-eraginaren balorazioari dagokionez, adierazten da kultura jardueretan, oro har, ez dela emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunik identifikatzen, erakunde bakoitzeko plantilletako osaera parekidea alde batera utzita.

- Respecto a la valoración del impacto de género, se señala que en las actividades culturales, con carácter general, no se identifican desigualdades entre mujeres y hombres, al margen de la composición más o menos paritaria de las plantillas de cada una de las entidades.

**Eranskina 4. Diputatu Nagusiaren Alorra Departamentuaren txostena. Euskararen esparrua.**

**Anexo 4. Informe del Departamento de Área del Diputado General. Área de euskara.**

- Aipatzen da 2022an 32 elkarte/erakunderen eskaera jaso zirela eta denak onartu zirela. Eta aurkeztutako proiektu guztiak jaso zutela, era batean nahiz bestean, gizonen eta emakumeen berdintasun irizpideen aplikazioari buruzko informazioa, diruz lagundutako proiektuan edo jardueran.

- Se señala que en 2022 se recibieron 32 peticiones y que todas fueron aceptadas. Y que todos los proyectos presentados informaron, de uno u otro modo, de la aplicación de criterios de igualdad de mujeres y hombres en el proyecto o actividad subvencionada.

- Bestalde, proiektu gehienek Hizkuntza

- Por otro lado, la mayoría de los proyectos

Berdintasuneko Zuzendaritza nagusiaren diru- laguntza jaso zuten. Beraz, diru-laguntzen araubidean ezarritako berme eta beharkizunak betetzen dira: berdintasun planak, generoaren arabera banatutako datuak, genero trataeraren arloan hobekuntza neurri zehatz bat aurkeztea…

recibieron subvención de la Dirección General de Igualdad Lingüística. Se cumplen, por tanto, las garantías y obligaciones establecidas en la normativa reguladora de las subvenciones: planes de igualdad, datos desagregados por género, presentación de una medida de mejora concreta en materia de tratamiento de género…

- Taula batean aurkezten dira onartutako eskaera proiektu bakoitzean emakumeen eta gizonen arteko berdintasun irizpideak aplikatu izanaren xehetasunak

- Se presentan en una tabla los detalles de la aplicación de los criterios de igualdad de mujeres y hombres en cada uno de los proyectos de solicitud aprobados.

- Azkenean, ondorioztatzen da, euskararen esparruan onartutako proiektuetan era egokian bete eta aplikatu direla emakumeen eta gizonen arteko berdintasun irizpideak.

- Finalmente, se concluye que en los proyectos aprobados en el ámbito del euskera se han cumplido y aplicado adecuadamente los criterios de igualdad de mujeres y hombres.

**Eranskina 5. Ekonomia Sustapena eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren txostena. Berrikuntza eta internalizazioaren esparrua**

**Anexo 5. Informe del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos. Área de innovación e internacionalización**

- Lehentasunezkotzat jotako programa edo jardueren genero egokitasuna identifikatzen da.

- Identifica la pertinencia de género de los programas o actividades declaradas como prioritarias.

- Datuak sexuaren arabera bereizita aurkeztu,

- Presenta datos desagregados por sexo,

desberdintasunak identifikatu eta neurri zuzentzaileak proposatzen ditu.

identifica desigualdades y propone medidas correctoras.

**Eranskina 6. Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kiroletako Departamentuaren txostena. Lankidetza esparrua.**

**Anexo 6. Informe del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes. Área de cooperación.**

- 2022an lehentasunezkotzat jotako programak edo jarduerak egiten dituzten erakundeak zerrendatzen ditu.

- Relaciona las entidades que llevan a cabo programas o actividades declarados como prioritarios en 2022.

- Adierazten du egindako eskaera guztiak lehentasunezkotzat jo direla, giza eskubideen defentsarengatik eta genero ekitatea sustatzeagatik, arlo guztietan: ekonomikoa, soziala edo politikoa. Eta jarduera horiek aitortzeak zuzenean eragiten diola hezkuntzaren, osasunaren eta oinarrizko laguntzaren esparruan munduan dauden emakumeen eskubideen defentsari.

- Señala que todas las solicitudes realizadas se han reconocido como prioritarias por la defensa de los derechos humanos y la promoción de la equidad de género en los distintos planos: económico, social o político. Y que el reconocimiento de dichas actividades afecta directamente a la defensa de los derechos de las mujeres en el mundo en el ámbito de la educación, salud y asistencia básica.

**Eranskina 7. Gobernantza Departamentuaren txostena. Suteen aurkako esparrua.**

**Anexo 7. Informe del Departamento de Gobernanza. Área de prevención de incendios.**

Adierazi du zein diren lehentasunezko jarduerak egiten dituen zentroak (Sueskola Fundazioa) aurrera eramandako ekintzak genero ikuspegitik:

Señala cuáles son las acciones desarrolladas desde la perspectiva de género por el centro (Fundación Sueskola) que realiza las actividades prioritarias:

- 2022an Berdintasun Plan berri bat onartu zuen 2022-2024 epealdirako.

- Azken urteetan, suteen prebentzio eta itzalketa taldeetan emakumeek duten presentzia ezagutzea helburua duen ikerketa bat egiten ari da. Ikerketaren 2022. urteko datuek adierazten dute trebatutako 3.000 pertsonetatik 454 direla emakumezkoak (%15,0). Ehuneko hori aurreko urtekoarekin (%7,94) alderatuta bikoiztu egin da.

- Lehentasunezkotzat jotako programa edo jardueraren genero egokitasuna identifikatzen du.

- Datuen arabera ondorioztatzen da gizarteko enpresa eta beste eragile batzuek garatutako suteen prebentzio eta itzalketa alorra gizonezkotua dagoela.

- Neurri zuzentzaile bezala aipatzen da ikerketarekin jarraituko dela, eta datu basea osatzean, datu hauen denboran joera ikusita, ondorio zehatzagoak ateratzeko aukera egongo dela, etorkizunari begira datuak hobetzeko.

- En 2022 se aprobó un nuevo Plan de Igualdad para el periodo 2002-2024.

- En los últimos años se está realizando una investigación cuyo objetivo es conocer la presencia de las mujeres en los equipos de prevención y extinción de incendios. Los datos del año 2022 del estudio indican que de las 3.000 personas formadas 454 son mujeres (15,0%). Ese porcentaje es duplica la del año anterior (7,94%).

- Identifica la pertinencia de género del programa o actividad declarado como prioritario.

- De los datos se desprende que el ámbito de la prevención y extinción de incendios desarrollado por empresas y otros agentes sociales está masculinizado.

- Como medida correctora se menciona que se continuará con la investigación y que con la formación de la base de datos, y vista la tendencia temporal de los mismos, se podrán extraer conclusiones más concretas para mejorar los datos de cara al futuro.

**Eranskina 8. Jasangarritasun Departamentuaren txostena**

Adierazi du ez dela egokia egitea, ingurumenaren arloko lehentasunezko jardueren adierazpena 2023an egin zelako. Nolanahi ere, kontuan hartuko dira Hondakinak Kudeatzeko Planari egindako genero-ebaluazioan egindako gogoetak, eta, bereziki, prebentzio-planeko ekintzak gauzatzeak emakumeen eta gizonen berdintasunean eragin positiboa izango duela bermatzeko ezarritako orientabideak.

**Anexo 8. Informe del Departamento de Sostenibilidad**

Señala que no procede su realización, por cuanto lo declaración de actividades prioritarias en el ámbito del medio ambiente tuvo lugar en 2023. En cualquier caso, se tendrán en cuento los consideraciones realizadas en lo evaluación de género efectuado al Plan de Gestión de Residuos y, en especial, las orientaciones establecidos en el mismo poro garantizar que lo ejecución de los acciones del plan de prevención tengan impacto positivo en lo igualdad de mujeres y hombres en la presente materia.

**Departamentuek aurkeztutako txostenen ondorio orokorrak**

Txosten horietatik ondorioztatzen da lehentasunezkotzat hartutako elkarteak, fundazioak, entitateak eta programak oso ezberdinak direla beraien artean, bai bere jarduera eremuan eta baita bere tamaina eta osaeran ere. Beraz, aukera ezberdinak eman dira frogagiri bezala aurkezten duten dokumentazioan.

Oro har, departamentuek aurkeztutako memoria gehienek, sexuaren arabera

**Conclusiones generales de los informes aportados por los departamentos**

De esos informes se concluye que el colectivo de asociaciones, fundaciones, entidades y programas declarados como prioritarios es muy diferente entre sí, tanto en su ámbito de actuación como en su propio tamaño y composición. Por tanto, se dan distintas situaciones en cuanto a la documentación justificativa que aportan.

En general, la mayoría de las memorias aportadas por los departamentos, aunque

bereizitako datuak eman arren eta desberdintasunak identifikatu , ez dituzte datu horiek berdintasunaren ikuspegitik aztertzen, ez dituzte barne hartzen hautemandako arrailen interpretazio esparruak, eta ez dute beren eremuan babestutako jardueren aurretiazko genero eraginaren ebaluaziorik egiten.

aportan datos desagregados por sexo e identifican desigualdades, no analizan esos datos desde la perspectiva de la igualdad, ni incorporan los marcos interpretativos de las brechas detectadas, ni realizan la correspondiente evaluación previa de impacto de género de las actividades protegidas en su ámbito.

Aurreko ekitaldietan ere arazo horien berri izan genuen. Konpontzen saiatzeko, departamentu sustatzailea hobekuntza-prozesu bat garatzen ari da. Horrela, departamentu arduradunei jakinarazpen bat bidali zitzaien genero eraginaren txostena egiteko betebeharra adieraziz, eta dokumentu bat erantsi zen, sartu beharreko funtsezko alderdiak jasotzen zituena: egokitasuna, bereizitako datuak, desberdintasunen identifikazioa eta neurri zuzentzaileak.

Ya se tuvo constancia de dichos problemas en ejercicios anteriores. Para tratar de solucionarlos se está desarrollando un proceso de mejora por parte del departamento promotor. Así, se envió a los departamentos responsables una comunicación señalando la obligación de realizar el informe de impacto de género, y se adjuntó un documento dónde figuraban los aspectos sustanciales a incluir: pertinencia, datos desagregados, identificación de desigualdades y medidas correctoras.

Beraz, nahiz eta lan hori egin den aurretiazko genero eragina ebaluatzeko eta informazioa homogeneizatzeko eredu bat adosteko, oraindik ere egiaztatzen da ez dagoela datuak biltzeko eta aurkezteko modu antolatu eta sistematizaturik. Erakunde, fundazio, programa eta elkarte bakoitzak bere moduan egiten du. Horren ondorioz, sail arduradunek zailtasunak

Por tanto, y a pesar de haberse realizado esa tarea de tratar de acordar un modelo de evaluación previa de impacto de género y de homogeneización de la información, se sigue constatando que no existe una manera organizada y sistematizada de recoger y presentar los datos. Cada entidad, fundación, programa y asociación lo realiza a su manera.

dituzte txostenak egin ahal izateko.

Horren ondorioz, departamentu arduradunek zailtasunak dituzte txostenak egin ahal izateko. Eta, horrek guztiak, aldi berean, arazoak eragiten dizkio neurria sustatzen duen departamentuari, dagokion ebaluazioa egiteko, desberdintasunak identifikatzeko eta neurri zuzentzaileak hartzeko. Oso zaila da departamentuek aurkeztutako txostenen ondorioak modu globalean jasotzea eta aztertzea.

Ello provoca dificultades a los departamentos responsables a la hora de poder realizar sus informes. Y, todo ello, provoca a su vez, problemas al departamento promotor de la medida para realizar su correspondiente evaluación, identificar desigualdades y tomar medidas correctoras. Resulta muy complicado recoger y analizar de un modo global las conclusiones de los informes aportados por los departamentos.

Beraz, beharrezkoa da genero ikuspegitik egindako azterketa hobetzeko prozesu horretan sakontzen jarraitzea.

Por tanto, resulta necesario seguir profundizando en ese proceso de mejora del análisis desde la perspectiva de género.

### 3.2.3 Genero eraginaren balorazioa

Lehen esan bezala, emandako informazioarekin oso zaila da aztertutako proiektuaren genero eraginaren behar bezalako balorazioa egitea. Hala ere, lehentasunezko jardueren indarraldia 2024-2028 aldira luzatzeak aukera emango du epe egoki bat izateko, arau proiektu honen genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa hobetzeko prozesuari berme egokiekin aurre egiteko beharrezko baldintzak sortzeko.

### 3.2.3 Valoración del impacto de genero

Tal y como se ha comentado con anterioridad, con la información suministrada, resulta muy complicado realizar una valoración adecuada del impacto de género del proyecto analizado. Si bien, ampliar la vigencia de las actividades prioritarias al periodo 2024-2028 permitirá contar con un plazo adecuado de tiempo, para crear las condiciones necesarias para afrontar el proceso de mejora de la

evaluación previa de impacto de género de este proyecto normativo con las garantías adecuadas.

Ildo horretan, sexuaren arabera bereizitako datu gehiago eta hobeak pixkanaka sartzeak, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak identifikatu eta aztertzeak eta, hala badagokio, programen ardura duten departamentuek horiek zuzentzeko neurri espezifikoak diseinatzeak, aukera emango du arau proiektuak etorkizunean genero eragin positiboa izan dezan emakumeen eta gizonen berdintasunean.

En ese sentido, la incorporación poco a poco de más y mejores datos desagregados por sexo, la identificación y análisis de las desigualdades entre mujeres y hombres, y el diseño de medidas específicas para corregirlas, en su caso, por parte de los departamentos responsables de los programas, permitirá prever que el proyecto normativo tenga, en el futuro, un impacto de género positivo sobre la igualdad de mujeres y hombres.

Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitu dira.

Finalmente y respecto al uso sexista del lenguaje, se ha procedido a adaptar los términos del proyecto.

Donostia, 2024ko martxoaren 8a

San Sebastián, a 8 de marzo de 2024

**Sin./Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal**
**AZTERLANETAKO ATALBURUA/ JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS**